




Iñeroko aldizkingi ede argiduna

Aita Kaputxinoak zuzendua

:—:	V Urtea	1923'ko	Urila	58 Zenbakia	:—:
-----	---------	---------	-------	-------------	-----

Jaungoikoaren Aginduak



Si vis ad vitam ingredi, serva mandata. (Matth. XIX-17)

Nai ba'dezu bizitzan (zorionean) sartu, bete aginduak.



JAUNGOIKOAK gizonari Aginduak, Jaunak gizonaren zorionerako ebaki dituan bideak dira.

Jaungoikoaren mandamentuak edo Jaungoikoak Aginduak gauza bat bera dira. Guri zerbait egitera beartzeko edo zerbait egitea debekatzeko Jaungoikoak jafi dizkigun legeai deitzen diegu Jaungoikoaren Agindu edo Mandamentuak.

Gizonak, ezaguera dunak geraldako, guziok ezagutu ta bete dezazkegun legez nai gaitu zuzendu Jaungoikoak. Argatik Jaungoikoaren legea, garai guzietarako, toki edo lufeko alderdi guzietarako ta gizon mota guzietarako on dena ta bea bezalakoa da, beste inoren edo inongo legeak ez bezala.

Noiz emanak dira Jaungoikoaren aginduak?

Jaungoikoak gizona egitean, bere biotzean ezañ zizkion berak Agindu oiek. Argatik esan dezakegu Jaungoikoaren Aginduak gizonaren sortzeko egunekoak dirala ta oiek gabe beñere eztela bizi izan gizo-

na. Gizonaren biotzean Jaungoikoak ezafi zuan lege oni *Izatezko legea* deitzen zaio.

Pablo deunak zion: Moises eta Jesukristo'ren legea ez duten efiak, berez egiten dute legeak agintzen duana, legean agindua biotzean ezafirik dagoala ofela adiraziz. (Rom., II-14.) ¿Noiztik ezafia? Gizonaren sortzetik nonbait ere.

Baño Jainkoaren eskuak gizonaren biotzean ezañitako lege ori aztutze-ra egiten zuten askok eta Jaungoikoak bere efi maiteari erakutsi nai izan zion añigafizko aunditasunean. Sinai zeritzaion mendi zearean arkitzen zan efi guzia ta mendi galdofean Jaungoikoaren aunditasuna agertu zan odei argi su-gar biziak zerizkionean. Añigafizko abots indartsu izugariatz efi guziari adirazi zion lege ori ta gero Moises'eri bi ari-oletan ezañirik eman zion.

Ona Jaungoikoak Moises'i eman zizkion bezala.

I. Ni nai zure Jaungoiko Jauna: eztuzu ni beste Jaungoikorik izango.

II. Jaungoikoaren izena agoan ez alpefik artu.

III. Oroi zaite jai egunak (itzez-itz *larunbata*) jai egitea.

IV. Gurasoak aintzat artu.

V. Ez inor il.

VI. Ez aragikeririk egin.

VII. Ez ostu (ebatsi).

VIII. Gezuñezko lekuko ez izan.

IX. Lagun urkoaren emazterik ez nai izan.

X. Inoren ondasunik ez nai izan.

Auxe da inoiz ere aldatuko ez dan gizonaren bizi bidea. Argatik Jesus'ek beñiztatu ta gailendu bai egingo ditu Agindu santu oiek, baño ez bat bakarik aldatu; baizik len-lenengo oñean jafirik utzi.

G. ¿Zer dago Jaungoikoaren Legeko aginduetan?

E. Jaungoikoaren Legeko lenengo iru aginduetan, Jaungoikoarekiko ditugun eginkizunak daude: ta lagun urkoarekiko ditugunak, beñiz, geñerako zazpietan (B. K. I.)

Argatik eman zizkion Jaungoikoak Moises'i lenengo iruak ar-ol batean ezañirik eta beste zazpiak beste batean. Jesus'ek, beñiz Jaungoikoaren maitetasuna ta lagun urkoarena biak bear dirala esan ondoren erantsi zuan: bi Agindu auetatik datoz lege guzia ta Profetak.

Bi zango eman dizkio lufean ibiltzeko; bi Agindu aundi zeruko bidez joateko. Aiek beañezkoak ba'ditu lufean ondo ibiltzeko, bearezkogoak beste bi auek zeruko bidean auferatzeko. Aiek eusten diote lufetik jasorik lokatz zikiñez eta ustelkeri guziz beterik ez bizitzeko; eta Agindu auek lufeko gaitakerien lokatz lotsagarigoetan eroririk ez usteldu ta gaitzeko.

Jaungoikoarekiko eginkizuak bete ezkeru, lufeko guzien gañetik goraturik, Jaungoikoaren ume atsegiñen artean tokia artzen du; ta lagun urkoarekiko eginkizunak bete ezkeru, lufari itsasiko luketen guzietatik bere burua bereizten du; au da, bi Agindu oiek dira gizonarentzat, egaztierentzat bere bi egalak bezala; lufetik jaso ta Jaungoikoaganaññ igotzeko bidea ematen diotenak.



ASIS'TAR PRANTZISKO DEUNA

Bost zauri odoltsuz jorik
Jainko gafetan urtua,
Prantziskok ziñez dirudi
Kristo odoletan ustua.

Goimaitasunez suturik
siniste gaben aldera
iru bider jotzen dezu
Kristo'ri aik ekartzera.



Nai zendukena eziñez
etzaitzu itzaltzen gogoa,
maitasun gafez pizturik
sukafaz dezu kolkoa.

Bizturik zure aufetan
jungo da luñak bafena,
l'izoztuak berotu-ta
ba-dekarzke Kristogana.

Garaipen beñi oiekin
zapaltzen dezu etsaia
l'eliz dar-dar zegianak
zugan du bere tantaia.

Ar'tar A,

Bete al dezazke gizonak Agindu oiek?

Gizonarentzat ez dira eziñezkoak Jaungoikoaren Aginduak, bestela ez lizkioke aginduko; baño oso zailak dira guzi-guziak gizonak berez betetzeko.

Ala ere Jaungoikoaren laguntza, alde, grazi edo doaiatz, bete dezazkenak eta efaz ala ere bete dezazkenak biurtzen dira. Bestela esatea birao edo blasfemia izango litzeke; Jaungoiko berak agindu digu bere Gogoa (espiritua) bere Aginduen arabera ibiltzeko.

Jesus berak esan du: nere uztafia leguna da ta bere zama ariña (Mat. XI-30. Eta S. Juan'ek dio: Jaunak Aginduak ez dirala astunak. Eta santuen bizitzetan dakusgu pozarik aundienaz beterik bizi zirala aiek betetzen ziztuzten artean.

Beařezkoa al da Aginduak betetzea?

Bai inolaz ere. Ala erakutsi zuan Jesus'ek. Urbildu zitzaion gazte bat esanez:—zer on egingo dut betiko bizitza irixteko?—Nai ba'dezu bizitzan sartu bete Aginduak, esan zion Jesus'ek. Au da, Jaungoikoak zerura nai degun guziori esaten diguna. Auxe beař-beařezkoa, auxe ezinbestezkoa, auxe inori barkatuko etzaiona. Egizu oietan esaten zaizuna ta biziko zera, oietek dira-ta betiko bizitzera garamazkien bide zuzena ta bakařa.

Intzar Damaso An. O. M. Cap.

Gurutze Deunaren Goreskundera



ERAKLI seireunda amařgafen (610) urtean kaisar (*enperadore*) ospatua (egina) izan zan; eta bere auřekoarekin gudan (*gera*) zebilen Persi'ko eřege Kosroarekin onezkoak egiteko alegia egin zituan; baño eřege ařo-erukaitz ařek Kaisereñ pakebide guztiak ezetsi-ta bere luřaldeetan lapuřkeriak beřitzen asi zan.

Seireunda amabost gařen (615) urtean Jerusalemaz jabetu zan eta kristauak Eguteraldean zuten ontasunik bikařena, len esan genduan bezela. (1) Elena deunak zilařezko kutxa sarturik Kalbarioan egindako eliza edeř-ederean ipiñi zuan Jesukristoren egiazko gurutze erdia, lapuřtuta Persiko Kresipon urira eraman zuan. Eři onetan egon zan amalau urteetan, berari zioten bilduřaz noski; persiař bat ere etzan zorioneko egur ori ikutzera ausartu.

Heraklik Kosroari bigafen aldiz onezkoak eskatu zizkion eta eřege ařoputz arek, Kaisařek eta bere mendeko kristau guztiak Jesukristo utzi eta persiafen jainko bakař eguzkia jainko bakařtzat artu eta guřtzekotan, onezkoak egingo zituala erantzun zion.

Ořen jařdun dongea entzunda kristau guztiak izu-ikaratu ziran; eta Herakli Kaisařek lotsagabekeri likits ori zigortzeagatik bere odola azkeneko řanřoraño ixurtzeko gertu zegoala aitortu zuan; eta Herakli bera gudaroz-

tearen (soldadutaldearen) buru zala Persi'ra jo zuan. Etsaia ikusteraño ziranean Kaisar'ek bere gudariak, Jesukristoren irudi bat erakutsiaz, Jesukristoren alde zebiltzela ta gudarozteen Jaun eta Jainko danaren laguntza altsuan uste izan bea' zutela esan zien. Eta uste onek etzituan galdu; bada etsaiak eraso zieten eta persiak askoz ugariagoak eta burukan trebeagoak izan a'fen, erabat sakabanatu zituzten. Ondorengo burukaldiak etziran Kristau-entzat zori-gaiztoagokoak izan.

Bere gudarozteak erabat ondatuak eta bere buru antuste efukaitza bere mendekoak ere g'ofotaga'fi zitzaizela ikustean Kosroak igesari eman zion eta bere seme za'fena utzita e'fege-kidetzat biga'fena artu zuan. Egite onetzaz Siroe seme za'fena asafetu eta e'fegetzaren jabe egin da, aita eta anaia era ikaraga'fiz i' ondoren, pake-baldintzak (kondizioak) bere baitan utziaz Herakliri onezkoak eskatu zizkion.

Baldintza (kondizio) oietan lenengoa gure Erosle laztan-laztanaren gurutze agur'gafia itzultzea eta Jerusalem'go Gotzai Zakaria eta berekin batean menpetuak zeuzkaten kristau guztiak askatzea izan zan.

Siroek Herakliren baldintzak onafu zituan eta Gurutze Deun agur'gafi ura persia'fen mendetik aterata seireunda ogeitazortzigafen urtean (628) Konstantinoplara garaika'f eramana izan zan.

U'fengo urtean (629'ga'fenean) Herakli kaisara ondasun berdingabe ura lengo bere tokira itzuli eta iritxitako garaitzagatik Jaungoikoari eske'fak egitera Jerusalemeneratu zan.

Gurutze Deuna lengo bere tokira itzultzen ikusita kristau guztiak artu zuten poza ezin esan alakoa zan.

Zorioneko egur' agur'gafi ura Herakli berak kaisar jantzirik bika'nenaz apainduta Kalbarira eraman nai izan zuan.

Eliz-gizon, Zakaria Gotzaia, aundizki asko eta beste kristau sail izugafiaz inguratuta Gurutze Deuna bizka'fean zuala bazijoan; eta Kalbari-bideko uri-ateraño iritxi zanean ez atzera ta ez au'fera, *mugitu* ezi'nik gelditu zan eta beste guztiak ori ikusita zer gertatzen ote zan etzekitela afiturik gelditu ziran; ba'ño Zakaria Gotzaiak zer gerta bide zan ezaguturik Kaisari (*Enperadoreari*) begirapenez esan zion: «*Jaun ori, zure Kaisar jantzi eta apaingalu oiek gurutze ori bera bide ontatik eraman z'uaneko Jesukristoren so'neko apalen erakoak ote diran begira ezazu.*» Itz auetaz esan nai zitzaionari igafita, Heraklik bere so'neko eta o'ñetako apai'nak erantzi eta Kaisar eza'utalu guztiak utzirik, so'neko apal bat jantzita, o'ñ-uts eta buru-utsean Kalbariraño nekerik gabe eldu zan eta zorioneko zur ura ama' lau urte zirala persiak kendu zuten tokian ipi'ni zuan.

Jainkoaren Seme Baka'fak iru iltze gogofez josirik bere odol bikai'ñ-bika'ña gure erosterako ixuri zuan gurutze deunaren itzultze ospetsu ori seireun da ogeitabederatzigafen urteko (629) Ago'filaren amalauean egin zan.

Geroago zorioneko itzultze o'fen oroigaitzat urteoro jai aundi bat egitea erabaki zan. Jai au batez ere Egutera aldean txit ospetsua izan zan eta egun o'fetan Jerusalemena Gurutze Deuna gu'rtzera alde guztietatik kristau asko joan oi ziran.

Gertaera au ba'ño lenago ere kristauen artean «Gurutze Deunaren Goreskunde» jai urteoro Ago'filaren amalauean egin oi zan; ba'ño gertaera ori ezker ope aundiagoz egin zan.

Orain ere gure Eliz Ama Deunak egun ofetan «Gurutze Deunaren Goreskundera» ospe aundiz jai egiten du eta Eliz-otoitz nagusietako bigarren irakurkizunetan emen jaulki degun gertaera au gogoratzen digu.

Gurutzea ondasun eta atsegin guztien iturria eta itxaropidea dalako kristauaren ezauntzalurik aintzatsuena da.

ATAUN'DAÑ BON. A'K. O. M. CAP.

Padua'ko Antonio Deunaz

Ez dizute ukatuko.



TOITZA zenbat eta siniste ta uste geiagoz eta gogo garbiagoz egiten dan ainbat eta egikoragoa eta Jainkoak eta deunak (*santuak*) ebekiago entzuna izango da.

Aufak baño siñiskofagorik eta ustetiagorik ner ote?—Esaten zaieten guztia itxutxuan siñisten dute eta zerbait eskatzean ezertxo ere ukatuko zaienik ez dute uste.

Aufen gogoia (*anima*) baño garbiagorik luñ onetan bai ote da?—Aufen gogoak, baitaioaz Jainkoaren eskeferra, Jainkoaren adis-

kide izatera eldu ziran ezkerok, eltxo bat ere jafi ez dan lili txuri jaio-befiaren antzekoak dira.

Antonio Deunak, beren gogoko garbitasun eta tolesgabetasunagatik ain maite dituan eta bere besoetan daukan eta bere atsegin-poza dan Jesus-txoak maite-maite dituan aufen otoitzak ez entzun ote ditzake?—Ez inolare. Biotxo garbi, tolesgabe oien oiurak entzunda, biotz eruki-utsekoa dan Antonio Deuna ezin diteke soñ egon; onetsiko ditu eta Jaungoikoaren aintzarako eta beren gogoen onerako bada eskatzen dutena iritxiko die.

Auf baten otoitza. Urte asko ez dirala misiolari batek esaten zuan:

«Langile efi batean misioak ematen ari nintzan. Azkenekoetako egun batean il-zorian zegoan emakume bati laguntzera deitu zidaten; bere senafak eriko apaizari ateak itxi ziozkan. Emakume gaxoa azkenekoetan zegoan eta senafaren ateraldi batean, azkeneko ekiña egiñaz neri deitu zidan. Une gutxi baru etxe artan nintzan.

Atso zar bat eta bost urteko mutiko bat ziran, ia ilean, obeto esateko, ia ilda zegoanaren lagun bakafak; bizi antzik etzeukan... atsoari keñuz gal-

detu nion eta—Azken-azkenetan dago; baño baliteke oraindik erabat ez iltzea... Bera oraintxe atera da.... eta zuri deitzeko ateraldi onetaz *baliatu* naiz..... Nik kristau-legez azi nuan eta ořela iltzerik ez nuan nai—erantzun zidan.

Ezer erantzun gabe oi ondoratu nintzan eta nere *erloju-kristala* aoan jaři nion..... Asnasa bakař batek ere etzuan gandotu.

—İlik dago—esan nien.—Nerea egin det..... mutiko gaxoa!

Aufak negařari eman zion, atso gajoak eziř negař egiřik besoak biur-tzen zituan..... Alako atsekabeari begira eziř egonik, atsegiřezko itz batzuek esanda, ateratzera nijoala, amona lařitua lasterka bertako gelatxo batera sartu zan eta Antonio Deunaren iruditxo (*imajinatxo*) bat eskuetan nuala berealaxe atera zan.

Iruditxoak erakutsiaz—Jaun ori, zaude. Bakařik ausartuko ez nitzake... Jainkoagandik ain uruti bizi gera emen!... Baño zu emen zaunden ezkeroko azken-ezkeneko ekiřaldia egitera noa. Nere alaba elizakorik gabe ořela joa-terik ez det nik nai: *mirari* bat iristen lagundu bear didazu..... esan zidan.

Belaunikatu zan; nik ere, ia oartzaka, ori bera egin nuan..... mutikoa bion tartean. Sekulan ikusi detan ikuskizunik ařitzekoena orduan ikusi nuan. Amonak—Ene Andrestxo. ni zařegia nauk eta ia otoitz egiten etzekiat; baño Jainkoak iri entzungo dik.—«Antonio Deun on ořek, nere ama sendatu ezazu» biotzez esan ezak—esanaz irudia, aufari eskuetan ipiři zion. Eta aufak—«Antonio Deun on ořek, nere ama sendatu ezazu—beřesaten zuan.

Oso biotz-ikaturik nik ere otoitz batzuek esaten nituan. Amona ixilik zegoan baño bere begi zořotzak ilaren arpegian ezafita zeuzkan.

Jainkoaren ontasun aundia! Ama gaxoak bere semearen abotsa entzun ote zuan ala Antonio Deunak gogoa (*anima*) bere gorputzera itzultzea Jainkoagandik iritxi ote zuan? Ori erabakitzea ni baño jakintsuagoentzat uzten det..... Egia da, doi-doian oartzen ziran ezpaiř betazal mugitzeak gorputz ura artean bizi zala adierazi zutela. Amona jeiki zan eta—Ori ezin zitekeana, banekian nik! Ene Antonio Deun on ori eskeřik asko!—deadař egin zuan.

Orduan nere eginkizuna bete nuan. Belgundeak (*misioak*) oraindik iru egun iraun beař zuan. Azkeneko egunean «*piztuaren*» senař eta ama zařari elizan Jauna eman ondoren, kristau sař elizkoi bat lagun nuala gaxoari Jauna eraman nion.

Ai txikitxoan siřistea! Otoitz eginerazten jakingo balitz!...» (G. O. D.)

Kristau gurasuok, zuen estu-laři guztietan zuen aurtxoari otoitz-egięne-razo zaiezuete eta Antonio Deunak beren bitartez eskatzen diozutena iritxi-ko dizute.


Aufok, zeon eta zuen guraso ta senideen beař guztiak osatzeko mese-dea Antonio Deunari eskatu zaiozute eta ain maite zaituen Deun onek ezer-txo ere ez dizute ukatuko.

O'tař Ak. O. M. Cap.





ERIOAZ



Donostia'r J. A. A'k ereskidetua.

(Bordes)

Gi - zo - na non - dek zu - ur - tzi - a? Zer ez da
Ez de - la deus i - re bi - zi - a, Ke bat bai-




kik,
zik?

I - guin - tzak bi - otz - ez mun - du - a o - noz - ke-



ro e - ri - o - tza dek ur - bil - du - a i - re gan - dik.



Mundutar, atsegin loietan
Ondatua,
Auxe euki zak ire gogoan
Gogortua;
Oroi adi il bear aizela
Azkenean
Biar, aurki izan aitekela
Lur barnean.



Aberatsa, ire diruak
Ixtutzen au;
Agintza zoroiez munduak
Zoratzen au;
Asi adi txoraldi ortaz
Lotsatutzen
Baita benetan eriotzaz
Bildur artzen.

¿NOIZ ARTE?



ADIRALA euskaldunak edo euskaltzaleak beti intziriñaz ari diranak gure euskera bein betiko galtzera ba-lijoa bezela, nork daki ori nik baño obeki? Inñora baño geiago gure gana eldu dira olako jolasak; belafiak idekiak idukitzea aski ditugu entzuteko. Esan dezagun bereala entzunik ere ez ditudala siñesten. Eta zergatik ez ditudan siñisten aitortuko dizuet emen.

Esana dago gure euskeraren gora-bera Euskalefiko Apaizen eskuetan dagoa: oiek beren artaldeari ta bereziki auferi, euskeraz elizan mintzatuko diraneraño euskerak iraungo baitu. Oieri esker bereziki egon da azkar orain arteraño; oieri esker emendik aruntz ere, bear du iduki bere izatea, bere indaia.

Badakit jolas ori egia dala, añas egia (egi utsa). Ora zergatik ez dudan euskera galtzera edo elbañtzera dijoalako bildufik. Bai ote da gero Euskalefi guzian Apaizak baño euskaldunagorik? Nork du aukerainbat gar euskeraz berak itz egiteko ta besteai itz egiñerazteko, gure euskeran irakurazteko, euskaldunak arkitzen diran baztañ guzietan? Nork du oiek baño griña geiago euskaldunak Euskalefian egon arazi bearez, bestetara bañatzea alegin guzian atzeraziz?

Orek ola dirauneraño eztezakegu izan gure euskerarentzat bildufik. Eta ola iraungo duela, iruditzen zait egiaz itza eman al dezakizuetela. Oraingoa ikusirik gerokoa agintzen al dut.

Apaizak zergatik jotzen duan euskerara eñaxki adiraziko dizuet. Bakoiñtzak bear du bere eñia maitatu; Jaungoikoak ala nai du ta apaizaren eginbidea da, besteak baño gar aundiagoarekin Jaungoikoaren naiari jañaitzea (segitzea).

Ba-daki bere eñia guziz gañetik Euskalefia duala. Beraz biotzaren erditik Euskalefiari josia beañ du, bere eginbidea ori duelako. Eta Euskalefia euskerari esker baizik txutik egon eñtiteken ezkeru, euskera ori maite du ta maitatuko, bere eñiaren lenengo babestzalea eta—esan diteke—bakaña bezala.

Beste alde, Apaizak bere alegin guziak egin bear ditu Erlijioa bere inguruan azkar zaitzeko. Griña (ardura) ori ez duan Apaiza, ez diteke izan bear bezelakoa. Baño euskaldun Apaizak ba-daki guziz ongi zer zor dion euskerari Euskalefiko erlijio gartsuak, ba-daki emengo alderdi jainkotiafe-

nak euskera bakañik edo euskeraz geienik itzegiten dutenak dirala.

Beraz ba-daki euskeraz ařeta (ardura) artuz. gure euskera ederean berak itzegiñez ta besteai itzegiñeraziz bere apaiz eginbidea betetzen duala, bere apaiztasunari dagokion lana egiten duala. Ořa zergatik esan al dezakean goi-goitik, gure euskera maitearen adiskiderik oberena. bere izaneraz Apaiza dala. Ez diteke bestela izan.

Orain arterañoako Apaizak azkar iduki dute euskera gure Euskaleñian. Itz ematen dizuet oraingoak ere, aien aztarnak jařaitzeko asmotan gerala, ez bai gaude gure euskaldun eta Apaiz eginbideai uko egitekotan. Gure ondorekoak berdin egingo dute.

Noiz arteraño iraungo du euskerak euskaleñian? Apaiz euskaldunak izango diraneraño, oien erakuspideak ongi entzunak izanez.


Bayona'ko Eskualduna'tik.

Emakume ta Irakurgaia

Emakume Azaři (Ausarta) Bazkunakoei eskeñia

Gaiak: 10. *Irakurgaien ordezkoak.* 11. *Lan bide jatoria.* 12. *Zera*

10.—Irakurgaien ordezkoa.



Emakume Prantzi'taren Alkartasun Abertzalea'z bere kemenik oberenak irakurgai onentzat gordetzen dituala esan diteke; ofegatik antolaturik dagon alde guzietan irakurgai onen aldeko batzorde edo komiteak softzen dira ta urtero aurrekoak baño ondoren obeak irixten dira ta urtero. Bada aldi puxka bat erki edo departamentu - batzorde edo komiteetan eginkizun au besterik ez duan Irakurgai Onen Ordezko bat izendatzen dutela; urtero egiten diran Alkartasuneko Batzaře Nagusian irakurgai onen arazoarentzat egun bat izaten da; Paris'ko Irakurgai Onen Batzaře Nagusira Alkartasunaren izenean ordezko bat juaten da Alkartasunak berak egin duan edo lagundu dien lanen beři ematera.

¿Zergatik ez dute orain aldian Italia'ko Andre—alkartasunak au bera egin beař? ¿Bai al da gauz au katolikoen batzařetan maiz ta alde guzietan ikutzea zein gařantzi edo inportantzi aundikoa dan ikusten eztuen norbait?

Nork eztaki erlijio-lanetik ain gertu dauden bere lanetan emakumeak nolako kemenaz, siñismentaz, on egiteko gogoz, iraupenaz, ausardiz, biotz aundiz, eta nekeak eramanaz laguntzen duten?

11.—Lan-bide jatofa.

Eta zabaltzeko lanean bere biziko ondorenak ekaftzen dituzten lan-bide berri azkar ta afigafiak asmatzen dituzte. Irakurgai gaiztoak iya jaun ta jabe bakañak diran efialde batzutan, izkutuan dauden anima onen indařak esnatzeari ekiten diote, beař dana erakusten diote eta bakařkako lan au egin ondoan, entzule askoko itzaldiak egiten dituzte; an auřetik, jakiñen gañean dauden guztioik itz egiten dute efi artan irakuřtzen diran irakurgai txafen kontra, oien utsak, gezurak, ipui zatařak, joera txarřak, erlijioagana-ko gofotoa ta egunero botatzen duten pozoia argi-argi adieraziz; emendik ateratzen dute gaiztoen kontra lan egitea beařezkoa dala. Gero, «Katolikoak ez irakuři paper txarřik!» «Jende zintzoa, ez zere burua pozoiu!» burutzat dituzten idazkitxoak (eskrituak) zabaltzen dituzte. Onen ondoan oi duten bezela, sendi edo pamiletara aste batez edo, aldizkingi edo periodikuak doan bialtzan dituzte eta gero ikusaldi edo bisitak egiten dituzte ea pamiletan bialitako aldizkingiak arřu nai dituzten galdetzeko.

12.—Zera.

Bere lanen ondore onen, bere ausařdi ta iraupenaren zera bere animak betetzen dituan siñismen edo fedean biřalu beař da.

Kristau bikañ-bikañak bezela bera zabaltzeko lanaren ointzat otoitza, gure izatez gořtiko gauzak, ipintzen dituzte. Ta Alkařtasun prestu auek beren lanetan dabiltzkiten gogorazio ta asmoak adierazteko, nere ustez, obere-na da Lespiney'ko markesak 1911'ko Batzaře nagusian esan zituan itz auek emen ipintzea: Eztegu iñoiz ere buřuka asten ointzat siñismena ta otoitz edo orazioa ipiñi gabe. Ontarako guk otoitz egiten degu eta aldegun lagun, mon-ja ta apaiz geienai otoitzak eskatzen dizkiegu. Eta Irakurgai Onen Batzor-de edo Komitea ipiñi beař danean, alegiñak egiten ditugu bere lenbiziko egintza Meza esanaztea izan dedin.»

«Gure alkařtasunaren lufeř gořtiko izaera au gureen artean sařtzeko ta gure lan guztiak izaera ontaz bizi ditezela irixteko bide guziak ipintzen di-tugu.» «Irakurgai onen alde leku guztietan eta batez ere otoitzaz lan egiten degu, dala andre aberatsen artean gauza ontan erantzun-beař aundia řutelako ustea piztuaz, kristau izaera aultzen duten eta prantzitař-izaera ta iritziak nasten dituzten paper ta liburuak uzteko adieraziz; dala gai ontan ain jaki-ñezak diran eřiko andreakin.»

«Gure aizpa auen artean (nekazari ta langiřeen andreak) ta maitetasun aundiz argia sortzen saiatuz guk ausartak izaten ta edozein garai ta lekutan Jesusi lotsa gordetzen erakutsi nai dietegu.»

«Ausardia! ta zenbat beař dan (zion markesa prestuak) batez ere aldiz-kingi edo periodiko arazoan.»

Cultrera-Arbelaitz O. M. Cap.



JOXPİÑAXI'REN OĻOAK



ER esan dizu AstakiĻo'k?

—AstakiĻo'k zer esango zidan, ba? asta...keri franko.

—ĬBai neri iruditzen! Edefak esango ziñizkion, ba, zuk ere!

—OĻoi jatea ematen ari nintzen bera uferatu zaidanean eta berak esan dit: oĻo bikañak dauzkatzu Joxpiñaxi. Eta ordun «bai onak daude, Jaungoikoari eskefak—esan bada nik. Jaungoikoaren izena aipatu ba-dut aipatu, suak artu duan gizona bezala jafi zait eta esan dit: Jaungoikoak zer ikusteko dauke oĻoakin? Ergel edefak zerate biñipin zuek, beti Jaungoikoa gora ta bera erabiltzeko.»

—Baña, adizu,—esan diot, Jaungoikoak zer ikusteko dauken nere oĻoakin, diozu? Zuk baño aundiagokoa.

—Bai, Jaungoikoak emango dizkitzu oĻoak.

—Baita galantak ala ere ematen dizkit eta gero ere emango dizkiten ustean nago.

—Zuk etzaiozula oĻalokari afaultzik jafi-ta fiña asko aterako dizu.

—Aizu, zuk oĻalokari nai ainbat afaultza jartzen ba-diozu ere, Jaungoikoak ezpadizu laguntzen, guziakin tolorta piĻ edefa aterako ziñuke, baño afen oĻanda ta oĻaxkoakin etzenduke nai izaten dezun bezalako bazkaririk egingo ofagatik.

—Baño zuk afaultzik jafi gabe oĻalokak fiñarik ateratzen al dizu?

—Aizu, nik ez diot oraindik oĻalokari oĻoak eman ez didan afaultzarik jafi ta afaultz piĻa kabi batean ipintzen ba-diot ere, oĻoak aŕetik eŕutako afaultzak ditu guziak.

—Ordun Jaungoikoak zer ikusteko dauka oĻo ta afaultz oiekin.



—Baña, AstakiĻo zozua, (ta barkatu gaizki esana) afaultzak, fiñak, oĻo ta oĻalokak eztezu ba ikusten Jaungoikoak ematen dizkiŕela ta aŕi eskefak dauzkatela, dauzkadan bezin bikañak?

—Orixe da nik ezin siñistu dedana ta itxua ez izan afen, ikusten ez dedana.

—Nik ikusi-aziko dizut ba, ez begiz, bai adibidez; baldin gorputzean ezpada ere, baŕutik oso itxuturik ez pazaude.

—Eztizut siñisten, baño esazu.

—Nere oĻoak eŕundako afaultzekin jafiko det oĻaloka bat eta zuk gaurko gizon asko jakiñak berak, beren eskuz egiten diŕuten afaultzakin jafi zazu beste loka bat; bi oĻalokak idukiko ditugu egun beretan fiñak ateratzeo ta ikusiko dezu zureak zenbat aterako dizkitzun.



—Baño tiñak ateratzeko, artarako ařaultzak bear bai dira.

—¡A!... Bai, bai, bai; artarakoak bear! Jaungoikoaren eskuz egiñak bear!

—Zer uste dezu, txoraa, Jaungoikoa bere eskuz zure oloaren ařaultza oratzea datořela?

—Ez, eztet ori uste; uste dedana da Jaungoikoak oloaren baitan jafi duala gizonak iñoiz asmatuko eztuan bezelako indar egilea. Oloaren barunbe beratxean ařaultzaren azal gogořa egun batetik besterako sortuz, ta onen baruan alako axal me-mea oraindik baruagoan dauzkan txuringo ta gořingoari estalki egokia emanez eta ařigafiagoa dana, ortik beste olo bat sortzeko bear dan guzia ařaultza bezin janari osasungafi ta gozoan izkutatuz, Jaungoikoaren eskua dabilela uste dut. Datořela beste olako ařaultz bat oratzen dakian gizonen bat eta oduntxe uste izango det nere oloak ez-tutela Jaungoikoaren laguntza beařik ařaultzak eřunteko, tiñak ateratzeko ta nik naiko olo izateko.

—Ba, Jaungoikoa ibiliko da or gauza guzietan!

—Jaungoikoa ezpadabiř nor dabil ba? Zer uste dezu, oloak berak asma-tu dituala ořelako gauzak; edo oloak berak berezko jakinduriz egiten diřua-la ořen gauza ařigafiak? Ori ola uste ba-ziñuke olo oien ařean auzpeztu bear ziñuke ořen gauza ařigafiak egiten dituzten ezkeru.

—¡A! Joxpiñaxi, Joxpiñaxi; ořen buru gabea naizela uste al dezu?

—Nik eztet usle ořen buru gabea zeranik; baño eztezaket ere eraman ixilik, Jaungoikoak nere oloaz egiten dizkidan mesedeaz berari eskeřak ematean, iñork nere itzak gaizki artzea. Auxe guzia esan diotenean Astamaki-řo'k damutuaren aurpegia jafi dit eta azkeneko esan diot: Joxiñaxi, beti go-goan izango det gaurko gure jardun aldia.» Eta nik esan dit: poztuko nin-tzeke; ta ori gogoan ba-dezu aurki zuk ere egun gutxi baruko, Jaungoikoa-ri eskeřak emango dizkiozu oloen bidez ainbat mesede zuri ere egin dizu-lako.

PRAXKU



Misioetako Beriak

Asia Txikiena—Siria.

Nola il zuten Baabdash'eko Aita Leonardo Misiolaria.



ONSTANTINOPLA'ko Misioko Buru Aita Bruno'k auxe idazten (eskribitzen) dū:

Konstantinopla'tik Beirut'era eraman nauen ontzian sendagile gazte bat bere sendi edo pamilyakin topatu det: guztiok Armeni'ar katolikoak dira.

Gazte an lenago Beirut'eko Aita Jesuita'kin gero Armenia'ko Kaputxinoakin Mezze'n daukaten ikastetxean ikasten ibili zan. Gazte onek kaputxino bat ikusi orduko bere lenagoko maisuetako bat bezela artzen du, beregana urbiltzen da ta gauz askotaz izketan asten da Sortalde'ko jende doakabeari kezka ematen dioten gauzetaz itz egin arte.

Laxter esaten dit Turkia'tafak 1915'e'an il zuten 72 urteko aita zafaren semea dala. Aiton agurgafi onek 21 seme izan zituan; 12 urtez Mesopotamia'ko Aita Santuaren Ordezkaritza edo Delegazioan lan egin zuan. Mardin'en Bagdad'en ta noizbait Europa'n izan zan. Gauz auetxek esan dizkit nere ontzi-lagunak bere aita zafa beste katoliko ta A. Leonardo'rekin nola il zituzten esan baño lenago.

1914'e'an Turkia'tafak gureak Mardin'eko komentutik bota zituztenean, inguru aietan Aita Daniel ta Aita Leonardo bakarik gelditu ziran, lenbizikoak iges lekua pamilya adiskide baten etxean topatu zuen ta bitartean Aita Leonardo etzuen inork ere artu nai Mardin'eko eskola ta Misioaren eskubideak zirala ta Turkia'ta-fen poliziakin ezda-bidak izan zitualako. Bañan sendagile edo medikuaren aita agurgafi Juan Markis'ek, praille gaixoaz efukiturik, bere etxera juateko ots egin zion; antxe zeuden monja Prantzisko'tafak ere, oietatik bi Kaldea'tafak ziran ta bat, Armeniatafa: Markis'en etxean 4 ilabete egin zituzten ta A. Leonardo'k 12 egun, bere anai Kyriakys'taf Aita Daniel'engana juatea naiago izan zuen ta.

Baño Misioko fresna guztiak Markis'en etxean zeuden. Bi gizonek beti zaitzen zituzten alik eta pamilya guzia etxetik kanpora bota zuten arte.

Aita Leonardo Aita Daniel'ekin bi ilabetez bakarik egon al izan zan, gero Mardin'eko Gotzai edo Obispo armeni'ar katolikoarekin, Juan Markis berarekin, ogeien bat apaiz katolikoekin ta zismatiko batzuekin Ain Ahmed Agha'ra eramana izan zan. Guziok talde batean, goizean abiatu ziran 30 jendarme Turkia'ta-fen artean, Mandonh bey buru zutela; guztiok Gotzai edo Obispoa ta 72 urteko Markis berbera ere onutsik, burutsik ta besoak bizkafera loturik eraman zituzten jua beaf zuten lekuraño.

Ordu batzuz Sortaldeko eguzkiaren zartadak artuaz ibili ondoan, Ain Ahmed Agha'ra iritxi ziran.

Diarbekir'era eramango zituztela esan zitzaizen, baño afatsaldean Diarbekir' ko gobernadoriak agindu zuan guztiok il zitzaizela ezpazuten kristau-erlijioa uzten.

Malaian gotzai jaunak bere lagunakin efosarioa esateko beta pixka bat eskatu zuen, gero guziei bere pekatuetaz damutu zitezzen itz egin zien, beren bizia emateko bizkortu zituan eta gero guziaz absoluzioa eman zien.

Turkia'tafak bein baño geiagotan esan zien kristau-erlijioa utzi zezatela; ola egiñaz bizirik geratu edo geldituko ziran ezkerro.

Guziok argi ta garbi esan zuten etzuztela kristau-erlijioa utziko ta iltzeko daudenen otoitzak (orazioak) esaten dituzten bitartean ezpataz ta fusilaz ilak erortzen dira.

Egun batzuk geroago beste kristau Kaldea'taf ta Siria'taf nabari talde bat leku berean il zuten.

Beren gorpuk mendiko piztiak jan zitzaizuten utziak izan ziran.

A. Bruno

Baabdath-Libano'ko Misiolari ta Abadea.

«Lecároz»

Oraintxe eskuratu zaigu atsegiñez bete gaituan aldizkingi edo erebista eder-gafidun iruilaiko au.

Lecároz eman diote izena, Lekarotz'ko Ikasle-izanen Alkartasunaren agerkaria ta Lekarotz berean sortua dalako.

Zer asmotan sortua dan? «Batez ere Erlijioari ta Ikaskuntza edo ikaspide» on mota guzietakoai «dagokionaz» lan egiteko dio. Gure gaztedia Ikastol-buru edo (Instituitoan) eta Ikastol-buru ondorean naspildu edo beztu lezaketen bide okefetatik baztatu-erazitzeko ikaspide onak emateko asmoa dakar aldizkingi beñi onek. Asmo bikaña beraz ta oraindik bete eztana.

Oraingo zenbakian salik aundienak erderaz dakarzki, baño ba ditu bi euske-raz eta beste bat angeleraz.

Sumario: Nuestra Revista.—El Rdmo. P. Joaquín M.^a de Llevaneras.—Fundación del Colegio.—Reflexiones de un médico, *L. Muruzábal*.—Mi Virgen de Estudiante, *Ignacio Romero*.—La gravísima mancha de las naciones católicas, *P. C.*—Sta. Teresa, *Mariano Guerra*.—Kerizpea, *J. Olaizola*.—Carta abierta, *J. Bergareche*.—Remembranza, *Ignacio Romero*.—Los vuelos de Chiki, *P. C.*—Esku Dantza, *P. José A. de Donostia*.

Boletín de la Asociación: Reseñas de la primera y segunda Asamblea.—Tercera Asamblea, por *José Lecároz*.—Nuevos Socios Protectores.

Boletín del Colegio: Cuadro de Honor.—Lista de los favorecidos con el «Gran Premio de los Antiguos Alumnos».—Calificaciones obtenidas en los exámenes finales.—El Fútbol en Lecároz, por *Santos Begiristáin*.—Asabengandiko etorkia begiratzén, *Aranzadi*.—A bit of sad news. *F Fortunatus* death, *Javier Andonaegui*.

Redacción y Administración:—Colegio de Ntra. Sra. del Buen Consejo, Lecároz (Navarra).

Zenbaki onek 64 ofialde ditu. Urtean 5 laurleko edo pezetaz emango da. Gure zorionik bizienak Zuzentzaile ta idazle guziei. ¡Urte aunitzez!

Neketako Ama-Birjiña'ren Irarkolan, Iruña'ko Kaputxinotan.